

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DALLOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onestea auzolanen ordenantza

Kontzeju honek, 2026ko ekainaren 7an egindako bilkuran, hasierako onespena eman zion auzolanen ordenantza onartzeko espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onesten da. Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak 49. eta 70.2 artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, osorik argitaratzen da indarrean jar dadin.

Auzolanen ordenantza

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da kontzeju honetako auzolanak arautzea eta definitzea, halakotzat ulertuta kontzeju honetan norberak egin beharreko nahitaezko prestazioak, bat etorritz Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Kontzejua da lurralde izaerako toki erakunde bat, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dituen eta jardun jurisdikzioa udalerrinari baino lurralde barruti txikiagoan duena.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek ezartzen dira:

2.1. Auzotar familia: etxe batean, kontzejuaren lurretan, bizi den pertsona edo pertsona taldea; horietako batek behintzat kontzejuaren erroldan inskribatuta egon behar du, kontzejuan urtean zazpi hilabete baino luzaingoan bizitzeagatik.

2.2 Egoitzadunak: pertsona edo pertsona taldea, euren artean ahaide izanik edo izan gabe, edozein tituluren bitartez kontzejuan etxebizitzaren bat daukana, udal erroldan inskribatuta egon ala ez.

2.3. Auzolana: auzotarrek edo egoitzadunek kontzejuaren barrutian edo haren ondasun edo jabetzetan egin beharreko lana edo jarduera, kontzejuarena den edo erabilera esleitura daukan zerbitzu publikorako ondasun bat eraiki, konpondu edo mantentzeko.

Sailkapena:

2.3.1 Ohiko auzolanak: erabilera edo zerbitzu publikorako erabiltzen diren kontzejuaren ondasun eta zerbitzuak zaindu eta instalatzearren, urtean zehar egiten direnak.

Auzolanetan egin daitezkeen lanak hauek dira:

Herri barruko bide publikoak eta horien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

Saneamendu, hustubide, estolda, lorategi, iturri, putzu eta garbitokiak konpondu, hobetu eta garbitzea.

Kontzejuaren ur instalazioak konpondu, zaindu eta mantentzea, urak jatorrian biltzen diren lekutik etxeetako hartuneetaraino, kontzejua titularra den guzti-guztian.

Kontzejuaren jabetzakoak diren eraikinak eta gune publikoak konpondu, garbitu eta horien mantentze lanak egitea.

Kontzejuaren eskumeneko lurraldean pertsonentzako arriskuak saihesteko lanak egitea.

Bideak, landa bideak, baso bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.

Hilerria zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

Kontzejuaren onurarako beharrezko izan daitekeen beste edozein ekintza.

2.3.2. Ezohiko auzolanak: hondamendi, uholde, sute edo aurreikusi ezin daitezkeen bestelako ezbeharren ondorioz egin beharreko auzolanak.

2.3.3. Betiere, auzolanetarako prestazioak ez dira urtean 15 egun baino gehiago izango, edo 3 egun baino gehiago jarraian, norberak egin beharrekoak direnez.

Aurrekoa gorabehera, muga horretatik kanpo geratzen dira beren izaeragatik eremu komunen mantentze eta funtzionamendu egokirako aldian behin eta berriz egin behar diren lanak (lorategi-eremuen mantentze lanak, etab.).

3. artikulua. Behartuta daudenak

3.1. Auzolanak guztion onerako izanik, nahitaezkoa da, gutxienez, kontzejuko familia bakoitzeko kide batek parte hartzea, baita egoitzadunak edo kontzejuan etxe berean bizi diren egoitzadunetarikoa batek ere; bi salbuespen hauek daude:

a) Familiako, egoitzadunetako edo egoitzadun taldeko kide guztiak 18 urtetik beherakoak edo 65etik gorakoak izatea.

Aurrekoa gorabehera, 65 urtetik gorakoak ere joan daitezke auzolanetara beren borondatez, eta eurak ere istripu eta kalteetatik babestuta egongo dira dagokien aseguruarekin.

b) Auzolana egitekoa den egunean familiako kide guztiak (aurreko atalean ez daudenak) gaixorik edo ezindurik egotea. Horrelakoetan, batzarreko lehendakariari medikuaren ziurtagiria edo dena delako egiaztagiria erakutsi behar zaio.

3.2. Ordenantza honetako 2.1 artikuluan zehaztutako auzotar guztiak behartuta daude 2.3.1 artikuluan aipatzen diren auzolanetan parte hartzera.

Ordenantza honetako 2.2 artikuluan zehaztutako auzotarrek betebeharra dute 2.3.1 artikuluen a), b), c), d), e) eta h) letretan adierazitako auzolanetan parte hartzeko.

3.3. Aurreko apartatuan behartutakoez gainera, aprobetxamenduren bat duten auzotarrek (luberriak, egur aprobetxamenduak, etab.) nahitaez parte hartuko dute aprobetxamendua ematen dien ondasunarekin zuzenean nahiz zeharka lotutako auzolanetan.

4. artikulua. Deialdia

4.1. Lehendakariak egingo du auzolanerako deia, eta deialdian bertan zehaztuko du zein lan egingo den, non eta noiz hasiko den eta noiz buka daitekeen, bai eta zein lanabes eraman ere, 1. eranskinean ageri den moduan.

4.2. Auzolanerako deia ohiko eran eta iragarki oholean oharra jarritz egingo da, auzolanetara joateko betebeharra dutenak agertu ahal izateko moduko aurretiaz; salbuespena izango dira ezohiko auzolanak, berezko izaeragatik ez baitute baldintza hori bete beharko.

4.3. Edonola ere, auzolanak garaiz eta arrazoizko epean egin ahal izateko eta betebehardunek lan horiek ahalik eta erosoan egin ahal izateko, administrazio batzarrak egoera bakoitzaren larritasuna, eguraldia eta gainerakoak kontuan hartuko ditu.

5. artikulua. Auzolanak nola egin

5.1. Oro har, ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, bakoitzak egin beharreko lan motarako aldeztu aurretik zehaztu diren lanabes eta makineria nork berarekin ekarritik.

5.2. Horretarako, auzolanen liburu ofizial bat baliatuko da, eta bertan jasoko dira aintzat hartu beharreko gorabehera guztiak, 2. eranskineko ereduaren arabera.

5.3. Errejidore-lehendakariak antolatuko du auzolana, eta lana ahalik eta egokien egiteko moduan banatuko ditu pertsonak eta bitartekoak.

5.4. Auzolanerako unea aukeratzean, ahalegina egingo da kontzejuaren barrutian lan gehien izaten den sasoiarekin bat ez egiten; asteko zein egunetan egin ere ondo aztertu beharko da, hala auzotarrak nola egoitzadunak, denak bertaratu ahal izan daitezten.

5.5. Egitekoa den lanaren tamainaren eta hedaduraren arabera, betebeharra duen lagun kopuru jakin bati egin ahal izango zaio deia auzolanerako. Haien trebetasuna eta zenbateraino prest dauden kontuan izanda deituko zaie, ahalik eta eragozpen txikiena eraginez. Dena den, egiten dituzten auzolanak kontuan hartuko dira hurrengoan deialdi orokorrak egiten direnerako, horietara ez joateko aukera izateko.

5.6. Kontzejuak auzolanetan parte hartzen dutenak babesteko aseguru bat egingo du, zeinak auzolanetan gerta daitezkeen istripu arriskuak eta bestelako kalteak estaliko baititu.

5.7. Auzolanak ez dakar inola ere kontzejuaren eta auzolanean parte hartzera behartuta dauden arteko lan harremanik.

6. artikulua. Libre geratzea

6.1. Nahitaezko auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenek horretatik libre gera daitezke era hauetakoren batean:

- bere ordeez lana egin dezakeen norbait bidaliz,
- prestazio pertsonaleko ordu bakoitzeko 10,00 euro ordainduta, administrazio batzarreko lehendakariak behar bezala jakinarazitako likidazioa egin ondoren eta
- egin gabeko auzolan horren ordainetan beste auzolan batean parte hartuz, baldin eta huts egitea arrazoituta badago.

6.2. Aurreko apartatuaren ondorioetarako, administrazio batzarreko lehendakariak urtero, azaroan, auzolanetik libre geratze horien likidazioak egingo ditu.

Likidazio horiek diru bilketa prozedura arautzen duen indarreko araudiari jarraituz jasoko dira, eta Arabako Kontzejuen Foru Arauak xedatutakoari jarraituz, betearazte prozeduraz ere eskatu ahal izango da.

6.3. Deitutako auzolanera huts egiten bada, nahiz eta hein batean huts egin bakarrik, administrazio batzarreko lehendakariari hutsegite arrazoitua jakinarazi gabe, artikulua honen 1. apartatuaren b) letran xedatutakoa aplikatuko da eta, ondorioz, hor zehazten den zenbatekoa ordaindu beharko da.

7. artikulua. Kalte ordaina auzolanean parte hartzeagatik

Auzolanera joan behar duten pertsonak, bai herrian eremu komunak mantentzeko lanak egiten dituztenek, beren izaeragatik behin eta berriz egin behar badira (lorategi eremu komunak moztea, etab.), konpentsazio ekonomikoa jaso ahal izango dute horrek eragiten dizkien kalteen ordain gisa, kontzejuak erabakitzen duenaren arabera.

Azken xedapena

Kontzeju honetako auzotarren batzarrak hasierako onespina eman zion ordenantza honi 2026ko ekainaren 7ko bilkuran eta jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da eta ALHAOn osorik argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea erabakitzen den arte.

Dallo, 2026ko uztailaren 21a

Lehendakaria
JESÚS ARBINA LANDA